



Uharte bakartia

Gai honekin zerikusia duten arloak

- GIZARTE ZIENTZIAK.
- HIZKUNTZA.
- LENGOAIA.
- TUTORETZA.

HELBURUAK

- Norberak eta besteek erabaki garrantzitsuak hartu behar direnean erakusten dituzten jarreraren inguruko gogoeta egitea.
- Taldeko kideen arteko adostasuna bilatzeko interesa sustatzea.
- Gatazkak ebazteko, sormenezko irtenbideak eskaintzen saiatzea.

MATERIALAK

- ◆ Talde bakoitzarentzako txartelak eta mapak.

HASTEKO, laupabost ikasleko taldeak egingo ditugu, eta bakoitzari uhartearen mapa eta berreskuratutako gauzen zerrenda erakusten dituen orria emango diegu. Talde bakoitzak begirale bat izango du. Hauxe izango da talde guztien antzeztokia:

Itsasontzia hondoratu eta olatuek uharte honetara ekarri zaituztete. *(Hiru minutu dituzte uharteko zein lekutara heldu diren erabakitzeko; gero ezin izango dute aldatu).* Ertzean, baul bat eta ohol batzuk agertu dira.



Uhartearen eskema.



Baularen edukia.

Leku horretan emango dituzuen hiru asteak planifikatu egin behar dituzue: uhartea esploratu, janaria eta ura bilatu, lana antolatu, babesteko aterpea bilatu, uhartean bizi den tribuarekiko jarrera adostu, egon litezkeen etsaiei nola erantzungo diezuen erabaki... *(20 minutu inguru emango diegu hartutako erabaki eta estrategia guztiak bateratu baino lehen. Gero, ebaluazio moduko bat egingo da; begiraleek eginkizun garrantzitsuak izango dute horretan).*

Guztien arteko ebaluaketarako galdekizunak:

- Nola sentitu zarete egoera horretan?
- Nola hartu dituzue erabakiak?
- Zein rol sortu dira, erabaki horien arabera?
- Zelako arazoak sortu dira? Nola zuzendu dituzue?
- Zer hartu duzue etsaitzat zuen taldean?

Iturria:

Seminario de Educación para la Paz. Asociación Pro Derechos Humanos. **La alternativa del juego II. Juegos y dinámicas de educación para la paz.** Los libros de la Catarata. Madril, 1994.